

Ipuinak

Gaurkoa gogoeta eguna izanik ez dakit zenbateraino den ilegala edo ilegala hauteskundera buruz idaztea. Suposatzen dut botorik eskatu ezean gogoetaldia bera zuten eta bidezkoa dela, eta ez balitz ere, ez diot delitu zantz handirik ikusten Portu eta Sarasola torturatu zituzten guardia zibilak libre uztea erabaki dutenek egindakoarekin alderatuz.


Horretan ez daukat dudarik. Gainerantzean, bai. Giza-ema-kumeok zeinen haize-orratz garen ilustratzeko Eugenio Ibarzabalek *La pasión de mejorar* liburuan idatzitako pasarte bati eusten diot sarri. San Franciscotik New Yorkera iritsi berria omen zen hegazkinaz. Aireportuan lagun batzuk zain omen zituen autofotografia eramateko. Parkingera joan zirenean autoak gurpila zulatua zuela jabetu ziren. Propio egindakoaren itxura oso-oso zuten zarratada bat zeukan pneumatikoak. Gurpila aldatzen saiatu omen ziren baina ezin izan omen zuten. Irudikatu omen zuten beltz bat, par-

king hartan gurpilari labana sartzen eta burura etorri omen zitzaion: «New Yorken bizi baino hobea da beste edozer!». Asistentziari deika ari zirela latino arrazako gizona bat hurbildu omen zitzaion. Senitarterko batzuren bila joana zen aireportura. Gurpila aldatzen laguntzeko prest azaldu zitzaion. Jaka erantzitzi, eta eginahalak egin omen zituen, izerditan blai, gurpil berria jartzen. Baita lortu ere. Bostekorekin, eskerrak eta hogeidolar luzatu omen zizkieten, hasieran hartu nahi izan ez zituenak. Eta autofotografia etxerantz abiatu omen ziren. Bidean, autoleihatik begira, «New York ez da hain hiri txarra ere! Bizi daiteke hemen...» pentsatuz harritu omen zuten bere burua. Ordu erdi lehenagoko New York bera zen ordea New York! Nola alda genezake gure pentsamendua hain denbora tarte laburrean?, galdetzen dio bere buruari Ibarzabalek... Nola kostatzen zaigu hainbeste gure pentsamendua aldatzea?, erantsiko nioke nik.

Rajoy eta Rubalcabaren arteko telebista-etzabaida ikusi

Plazatik

Andoni Egafia



Baserritar iaio sentitu nintzen Rajoy eta Rubalcabaren arteko telebista-etzabaidari begira. Artelatz ezagutu nituen, edo okerrago, intxaurren, eta aldarenik ederrenean jarrita ere nekez gurtu daitezkeen santuak iruditu zitzaizkidan

nuen. Eta San Ovidioren ipuina etorri zitzaion gogora. Herri txiki bateko ermitak su hartu omen zuten. Baita San Ovidio, herriko patriaren irudiak ere. Bikarioak, ermita eraberritzeaz batera, baserritar iaio bati enkargatu zion San Ovidioren irudi berria zuzen egin zezan. Berri-tu zuten ermita, egin zuten baserritar irudi berria eta inaugurazio eguna ere heldu zen. Herritar guztiak elkartu ziren mezetan San Ovidio berria aldarrean zela. Bakarra falta izan zen. Zuzeko irudia egin zuten baserritarra. Biharamunean errietan joan zitzaion bikarioa: «Beste guztiak han ziren eta zergatik ez zinen joan zu, San Ovidio gurtzera?». Xalo erantzun zion baserritarra: «Artean artelatz zela ezagutu nuelako». Baserritar iaio sentitu nintzen telebista-etzabaidari begira. Artelatz ezagutu nituen, edo okerrago, intxaurren, eta aldarenik ederrenean jarrita ere nekez gurtu daitezkeen santuak iruditu zitzaizkidan.

Abertzaleak berriz sumatu ditut hiru gazte indiar haien modura. Aprobata egin omen zuten herriko plazan: begiak estali zituzten eta elefante bat ipini parez pare. Gazte batek belarria ukitu zion animalari eta zalantzarik gabe eman zuten epaia:

«Hau aza-hosto handi bat da!». Bigarrenak hanka ukitu zion eta hark ere ez zuten zirkinik egin: «Arbola-enborra da hau!». Eta hirugarrenak trompa ukitzean zera bota zuten: «Hau sugetzar bat baino ez da!». Bakoitzak nonbait bere errealitatea soilik ikusten du.

Eta Indiatik musika-aretoetara etorri, abertzaleen artean beti izan da *taburetea* eta *pianoarena* bataiatuko nukkeen ikamika. Taburetea Euskal Herria litzateke; pianoa Madril edo Paris. Jeltzaleek diote pianoa ez dela mugituko eta adimentsu jokatuz taburetea dela aldian-aldian mugitu eta egokitu behar litzatekeena nolabaiteko musikaririk lortzekotan. Ezker abertzaleak dio taburetea behin eta berriz mugitzen ahalegintzea hutsala dela, pianoa ere mugiarazi behar genukeela noizbait eta orain gaila gai horretarako... Harik eta organo-jole bat azaldu den arte. Muzin egin dio pianoa jotzeari. Ostikoz astindu du taburetea. Bestelako musika du gogoan. Ez dakit... Eugenio Ibarzabalek duela hamabost bat urte idatzi zuten hobetzeko gribaren inguruko liburua azpitu-tu esanguratsua du. Honelatsu itzuliko nuke: «Berdin segituzen badugu, lehengo baino ez dugu lortuko».

Txillardegiren ohorez: ETAREN zikloa

Joxe Azurmendi
Filosofoa

Atzera begiratzen badugu, gerraondoko uhinaren ekarpen nagusitzaite hauek aipa litezke, boteprontoa aipatzeko: nazio kontzeptuaren berrikuntza, politikoa (kritikoa abertzaletasun historikoarekin) hala soziala (abertzaletasuna eta sozialismoa uztartuz), internazionalismoa; mugimendu sozialen erupzioa (feminismoa, ekologia); hizkuntzaren garrantzia nazioarentzat, arrazarena edo historiarena baino lehen. Praktikan, euskararen batasuna eta normalizazioa, bizirik iraun ahal izan eta hizkuntza nazionala izan. Literaturaren berrikuntza, nobelan adibidez, edo zehinahi gaitara zabaldu den saioan. Tradizioarekin etena eta pentsamenduaren modernizazioa, aitaren etxe zaharreko

leioak lehenengo aldian batez ere existentzialismora eta pentsalaririk kristau moderno frantsestara zabalduz, gero nolana hiko ideietara. Euskaltzaleen munduaren lerrapena ezkererantz. Sozialismo demokratiko ala marxista-leninista iraultzailearen eztabaida. Erlijioaren kritika, gure kasuan nazional-katolizismoarena, eta azkenean horren eraberrikuntza edo arbuioa, eta moralaren askapena Elizaren eta tradizioaren menpetik... Den-denak Txillardegiren ideiak eta ekimenak.

Aro berria markatu duten intuizio erabakior guztien iturrietan Txillardegi topatzen dugu. Egia da historiak egiten duela jendea, Txillardegi ere bai. Baina historia ere jendeak egiten du. Eta Txillardegi XX. mende erdi hartako une gurutzealartean Euskal Herriak behar zuten gizona izan da.

Gustatzen bazaigu eta ez bazaigu, ETA ez da ETA bakarrik. ETAREN zikloa esan gene-

zakeena egundoko aldagoitzar dramatikoak izan da gure historian, Euskal Herri zaharra politikoki nahiz kulturalki erroetaraino astindu eta eraldatu duena. Dena ez du ETAK egin, hainbat gauza momentuko ETAREN aurka egin da zalantza gabe (Txillardegik 1967an utzi zuten erakundea, 2000n Aralar bultzatu du), baina, kulturalki bederen, ezer gutxi uler daiteke Euskal Herriaren bilakaeran ETAREkin etorritako berritasunak gabe.

Txillardegik ez du ETA fundatu bakarrik egin. Seguru asko luzarora politikan baino eragin inportanteagoa kulturaren izan du, ideia berrien irekieran, mundua ikusteko atrebentzia berrien erakusketan, euskararen modernizazioan. Garai batean abertzaletasunak eta sozialismoak elkarrezinak ziruditen, edo euskaltzaletasunak eta Unamunok. Orain Euskal Herri arras diferentia badaukagu, asko eta asko Txi-

Itxi da ETAREN zikloa bere on eta txar guztiak. Txillardegirengan aro horren figura sinbolikoa ohoratzen dugu. Pentsatzaile bezain ekintzailea, aitzindari eta bidelagun izan dugu beti. Bi xede ukan ditu bere traiektoria guztian: ezker abertzale indartsu bat, eta abertzale guztien batasuna. Eta amets bat: independentzia. Gertuago ikus ditzake gaur apika

llardegiri zor zaio. Epikoak izan dira haren konfrontamenduak EAJ-PNVrekin «abertzaletasun folklorikoagatik», Baztarririkarekin euskaragatik, Orizerekin ideiegatik eta moralarengatik, Ereñorekin hizkuntzaren filosofiatik, Rikardo Arregirekin marxismoagatik, «teipeekin» internazionalismoan ostendutako espainolismoagatik, eta abar. Txillardegik euskalduna, posizionamendu euskaltzale eta abertzale irmo bati uko egin gabe, mundu modernoan eta ezkerrean eta euskaraz lotsatu gabe ibil zitekeela erakutsi du.

Itxi da ETAREN zikloa bere on eta txar guztiak. Txillardegirengan aro horren figura sinbolikoa ohoratzen dugu. Pentsatzaile bezain ekintzailea, aitzindari eta bidelagun izan dugu beti. Bi xede ukan ditu bere traiektoria guztian: ezker abertzale indartsu bat, eta abertzale guztien batasuna. Eta amets bat: independentzia. Gertuago ikus ditzake gaur apika.